ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, LEHENENGO SAILKAPEN TALDEA, GESTIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KATEGORIAN, GESTIO ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren 3. puntuan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), Lehenengo sailkapen taldea, Gestioko goi mailako teknikarien kategorian, Gestio espezialitatean, lan kontratudun langileak sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA. Zati teorikoaren 22, 36 y 91 galderak eta zati praktikoaren 17, 40, 79 y 89 galderak baliogabetzea, eta, ondorioz, zati teorikoaren 101, 102 eta 103 erreserbako galderak eta zati praktikoaren 101, 102, 103 eta 104 erreserbako galderak jartzea haien ordez. Zati teorikoaren 22. eta 91. galderak eta praktikoaren 40. eta 89. galderak baliogabetzen dira erantzun bat baino gehiago ontzat eman daitezkeelako, zati teorikoaren 36. galdera eta praktikoaren 17. galdera baliogabetzen dira erantzunak ez datozelako bat galderarekin eta zati praktikoaren 79. galdera idazkera desberdina duelako euskaraz eta gazteleraz.

BIGARRENA.-. Oposizio-faseko ariketak zuzentzea, eta txanda irekiko gaindituen behin-behineko zerrenda egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

HIRUGARRENA. – Zerrenda horiek EHUko enplegu-atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp?prcs=265) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

LAUGARRENA. – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gainditutako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioren bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

BOSTGARRENA. - Adierazi behar da interesdunek eskabidean alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagiriak eta kopiak aurkeztu beharko dutela erkaketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia.

Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagiriak, kautelaz, oposizio fasea gainditu ez dutenek, baldin eta errekurtsoa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gainditzea ekar badezake.

Bestalde, UPV/EHUk ofizioz aurkeztuko ditu UPV/EHUn zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztagiriak, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.

Gainontzeko zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira egiaztagiri bidez, eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

SEIGARRENA. - Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko erregistroetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4. art.), lege horrexetako azken xedapenetako zazpigarrenak erregistro elektronikorako ezartzen duen salbuespenarekin (hau da, erregistro elektronikoari dagozkion xedapenak hasiko direla ondorioak sortzen legea indarrean sartu eta bi urteren buruan).

Leioa, 2019ko abenduaren 12 a

Epaimahaiko idazkaria

Ainoa Larrinaga Larrazabal